



Lana / La obra

2013an, Parot doktrina baliogabetu ondoren, ETako militante saldo bat aske geratu zen. Gehienek hogeitertetik gora zeramatzaten preso. Zer aurkitu zuten herrira itzultzean? Une historiko horretatik abiatuta, thriller politiko bat ondu du Pako Aristik, itzulera orok dakarren zirrara gai askorekin zipriztinduz: senitarteko sekretuak, belau-naldien arteko lotura ezkutua, hitzek errealitatearekin daukaten gatazka, ahanzturaren beharra ala oroitu ezinaren kondena, guztia kontakizun biziz eta elkarrizketa mami-suz emana. Historia kolektibo bat, norbanakoen ilusio eta sufrimenduek zeharkatzen dutena.

Amodio istorioak ere badaude, agerierian, edota ezkutuan, tabuaren erresuma itsuan, irakurle bizkorrak sumatuko duena, agian, edo ez. Asebeteko zaituen nobela duzu eskuartean, irakurle, luzaroan ahaztuko ez duzuna.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Rosa itzuli da**

Egilea / Autor: **Pako Aristi**

Saila / Colección: Narratiba, 112

ISBN / EAN: 978-84-9109-312-1

Salneurria / Precio: 18 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orrri kopurua / N° páginas: 224

Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 15 x 22 cm

Egilea / El autor

Pako Aristi (Urrestilla, 1963). Kazetaritzan lizentziatua da. Hogeita bat urterekin atera zuen bere lehen nobela, *Kcappo* (1985), eta geroztik idaztera dedikatu da, kazetaritza baztertu gabe. Genero asko landu ditu. Narratiban beste hiru nobelaren egilea da, *Irene*, *Krisalida* eta *Urregilearen orduak* (Espainiako Kritika saria, 1998). *Auto-stopeko ipuinak* ere idatzi zuen (1994). Haur literaturan ere oparo jardun du.

2004an, *Gauza txikien liburua* argitaratu zuen, eta *Note book* artikulua bilduma 2005ean. Bi saia-kera ere idatzi ditu: *Independentziaren paperak* (2012) eta *Euskararen isobarak* (2014).

Aristirenak dira halaber poesia-bilduma hauek: *Castletown* (1996), *Oherako hitzak* (1998), *Libreta horiko poemak* (2003), *Urari ostutako poemak* (2014), *Arrotz eta eder* (2016) eta *Maitatu zure egunak* (2018).



9 788491 093121